Urriaren 19tik 22ra



Zinegin

FESTIBALA

EUSKAL ZINEMALDIA

Hazparne

EGITARAUA

IRATI · BAÑOLET · TETUÁN · AZKEN DANTZA MAISUA
BIZKARSORO · MIRANDE , FILM BAT EGITEKO ZIRRIBORROA
UNICORN WARS · 10 WATT BAKARRIK · POSITIVE BOMB
PIXI POST ETA OPARI EMAILEAK · 20 000 ERLE ESPEZIE
ANIMADEBA · BARNEZ KANPO · HAIRA · LUMI

2023

Sar Hitza

Zinegin festibalaren 12. edizioa urriaren 19tik 22ra iraganen da. Urriko bakantzen hasieran, euskaraz gozatzeko parada Hazparneko zineman. 2012an, Eihartzea Kultur Etxeak, Ttattola gaztetxeak eta Haritz Barne zinema-gelak Zinegin festibala elkarlanean sortu zuten, atera berri diren euskal filmen proiektatzeko eta Hazparnen euskal kulturak bizitzeko behar duen hats gune bat proposatzeko asmoz.


Ostegunean, Garazi aldean herritarrekin filmatu Bañolet filma proiektatuko dugu egileen presentzian. Ostiralean, musika eta argazkia uztartuko dituen bi kontzertu : BARNEZ KANPO lehenik, Nahia Garaten argazkiekin, HAIRA bigarrenik eta bukatzeko LUMI, Nagore Legarretaren argazkiekin. Larunbatean "tourné-monté" tailerrean, taldeka edo bakarrik, film labur-laburrak sortuko dira smartphone edo kamara batekin. Dokumentalak izanen dira arratsaldean, batto Mirande idazleari buruz. Ez huts egin, bestalde ez baita berriz agertuko ! Segituko dugu Bizkarsoro fikziozko herrian: Josu Martinezek denboran bidai bat egitera gonbidatuko gaitu. Gaualdia bukatuko da animazio film batekin: Unicorn Wars, baina kasu, ez fida fotogrametan agertzen diren hartzumeei, film hau heldueri soilik zuzendua da. Igande goizean, haurren tartea, film laburrak eta genero nortasuna aipatzen duen 20 000 erle espezie filma. Animadeba, Debako animazio festibalari tartea utziko diogu, ordu batez euskarazko animazio filmak deskubritzeko. Gaualdia bururatuko da Irati Paul Urkijo, Errementari film zuzendariaren azken filmarekin. Filmaren lehen agerraldi publikoa Iparraldean !


Eskerrak

Milesker urte guzian Haritz Barne zinema-gela kudeatzen duen Zabalki elkarteari, festibalari harrera egiteagatik. Esker mila sostengua ekartzen daukuten instituzioei ; EKE-ri, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduari, Euskal Hirigune Elkargoari, Herriko Etxeari baita urtero laguntzen gaituzten Hazparne inguruetako enpresa pribatuei ere. Esker bereziak ere Euskal Zine Bilerari eta Kimuak erakundeari, ekartzen diguten ezinbesteko laguntza eta elkarlanagatik.

Zinegineko pinpirinak

zinegin@gmail.com
https://zinegin.eus





Osteguna 10/19a




POSITIVE BOMB

19:30 - (15')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Eñaut Castagnet, Lander Garro, Manex Fuchs
PLK zine tailerra - Ziburuko Piarres Lartzabal Kolegioko ikasleekin
Hizkuntza: Euskara
Zuzendarien presentzian

Jare eta Argik azken urtea dute kolegioan. Maiatza bukaera da, azterketen garaia. Argiren gurasoek mehatsu egin diote: brebeta xuria huts egiten badu, Ikastolatik aterako dute, Etxepare lizeoa tirrit. Momentuz, ostiral goiza da Piarres Lartzabal Kolegioan, eta ikasleak oldarraldian beti baikor.




BAÑOLET

20:30 - (52')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Maia Iribarne-Olhagarai
eta Paxkal Irigoyen-Etxeberri
Hizkuntza: Euskara
Zuzendarien presentzian

Luixa eta haren lagunak, Bañoleten haunditzen dira. Herri berezi hortako haurrek 11 urte betetzen dituztelarik, zeremonia garrantzitsu bat prestatzen dute.
Haurtzarotik heldutasunera pasatzeko egun haundia hurbiltzen ari da...

Ostirala 10/20a



10 WATT BAKARRIK

19:00 - (20')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Oier Fuentes
Hizkuntza: Euskara
Zuzendariaren presentzian

Egun batean erran zidaten gure herritik hurbil aspaldi irrati hedagailu bat egon zela, urruneko mendietara lanera emigratzen zuten herriko gazteekin komunikatzeko.
Arrasto horiei segika egindako filma da hau, irudi eta soinu-bilduma bat, garaiko protagonisten zein egungo espazioaren irakurketa.



TETUÁN

20:00 - (95')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Iratxe Fresneda
Hizkuntza: Euskara

Bizitza errealeko esperientzietan oinarrituta, Iratxe Fresnedak bidaia pertsonal batean murgilduko gaitu. Iraganak eta orainak bat egingo dute ikus-entzunezko esperientzia hunkigarri eta sentsorial batean. Danubio ibaiaren ertz lasaietatik hasi eta Madrilgo bizitza asaldatuan amaitu arte, lau istorio elkartu eta galduko dira Tetuan filmaren misterioetan.

Kontzertuak Argazki proiekzioekin Zinemaren ondoan

22:00
Prezioa: Urririk

BARNEZ KANPO

Nahia Garaten argazkiekin





Herraturiko irudiak, trantze musika. Montreal, Parise, New York. Lur azpiko metro itogarritik kanpoko espazio erraldoietara, hiru hiriak agerraldi misteriotsuen lurraldea bilakatzen dira.



HAIRA

Laupabortz Aire Ttipi

Peio Erramouspe, Paxkal Irigoien, Ekhi Lambert, Allande Etxeberri, Julen Etxeberri

Aldude baleako oihan eta erreka baten izena hautatu du Peio Erramouspek bere musika proiektua biziarazteko. Haira izenarekin atera du "Laupabortz Aire Ttipi" bere lehen bakarkako lana, @usopop -ek argitaratu duena. Musikaz eta kantariz inguraturik sorturiko aurkezpen pertsonal batekin dator, eskemak hankaz gora ezartzen dituena.

LUMI

Bezperen Dirdira
Nagore Legarretaren argazkiekin





2022an, Ziburu-Donibaneko bikotea itzultzen zaigu, primaderan Usopop Diskak zigilupean bigarren diskoa argitaratuko baitu.

Bezperen Dirdira lanean, bikoteak jendeen eta makinen arteko miraila sekula baino gardenagoa bilakatzen du: inoiz baino boz polimorfoagoa erritmo-konposizio organikoetan dantzan dabil. Desmartxa arrunt hibrido horrekin, Lumik 2014an sortze beretik abiatu zuen bilaketa prozesua bururaino eraman du.

2009az geroztik, Nagore Legarretak (Hernani, 1981) irudiak sortzeko argazki teknika esperimentalak lantzen ditu. Ibilbide horretan, lengoaia berezi bat jorratu du proiektu artistikoak garatzeko erabili duena. Besteak beste, giza mugei eta horiek inguruneareki/naturarekin duten harremanari buruzko hausnarketa landu du bere ikerketa lanetan. Planteamendu formalean, disziplina fotografikoaren mugekin jolasten du.

Larunbata 10/21a

ZINEKIN TAILERRA

10:00 - 18:00
Prezioa: Urririk

Aurten, "TOURNÉ-MONTÉ" ariketa bat eramanen dugu. Zinegineko kamerekin edota zure smartphonarekin, film labur ttiki bat sortzen saiatuko gira. Erronka hauxe da : filmaketako plano guztiak kronologikoki jarraian filmatzea.

Izena emaiteko, idatzi : zinegin@gmail.com



AZKEN DANTZA MAISUA

14:00 - (75')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Mikel Alvarez Sarriegi
Hizkuntza: Euskara
Zuzendariaren presentzian

Molde zaharreko azken dantza maisua genuen Paxatxo, hainbat belaunaldiz transmititu den dantza-irakaskuntza ereduaren azken katebegia izan baita.
Bere heriotzak gogor astindu zuen Beasain, eta azken urteetan garai berrietara egokitutako ohiturak, lehen aldiz, etorkizunera begira jarri ditu kezkaz. Ba al da tradiziorik dantza maisurik gabe? Eta, azkena izango ote da?



MIRANDE, FILM BAT EGITEKO ZIRRIBORROA

16:00 - (69')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Josu Martinez
Hizkuntza: Euskara
Zuzendarien presentzian

XX. mendearen erdialdean, euskara goi-literatura egiteko gai zela demostratu zuen Jon Mirande idazle paristarrak. Denek aitortzen diote bere garrantzia. Baina gai tabua da oraino. Hari buruz denetarik erran da. Arrazista zela. Pedofiloa. Nazia. Misoginoa. Ezmorala. Hari buruzko berri bakoitzak, kontrako iritziak harrotzen ditu. Ez dakigu zer egin harekin.
Jon Miranderi buruzko film bat egin nahi dut. Baina ez dakit nola. Agian, behingoz, hari eman behar zaio hitza.



BIZKARSORO

18:00 - (81')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Josu Martinez
Hizkuntzak: Euskara, frantsesa, alemana
Zuzendariaren presentzian
Euskarazko azpitituluekin

Existitzen ez den herri batean, bost istorio erreal, 1914tik 1982ra gertatuak, ahozko lekukotasunetan eta idazleen testuetan oinarrituak. Haietan barna, XX. mendean zehar Ipar Euskal Herriko herri ttipi batek bizitako aldaketa sozialak agerian. Hizkuntza baten erroizte eta hurrentzea. Eta bizirauteko borroka.



UNICORN WARS

-14

20:30 - (82')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Alberto Vázquez
Hizkuntza: Euskara

Urruneko lurralde batean, Hartzume eta Adarbakarrak betidanik gerlan dira. Azulin soldadua Adarbakarren odolaz egarri da, Liburu Sakratu Handiaren arabera, betiereko edertasuna bermatzen baitu. Bere anaia Gordik gerla ez du maite, ahabiak eta besarkadak gustukoago ditu. Baina azken guduaren ordua iritxi da : esperientziarik gabeko Hartzume unitate bat entrenamendu-eremutik atera da komando misio baten eramateko Oihan Magikoan.

KASU ! Film hau ez da haurrendako egina, baina bai helduentzat. 14 urtetik goiti.

Igandea 10/22a

16:30tatik goiti taloak Ezkia ikastolak egin!k!



PIXI POST ETA OPARI EMAILEAK

10:30 - (90')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Gorka Sesma
Hizkuntza: euskara
Zuzendariaren presentzian

Pixi Post da filmaren protagonista, neska elfo bat. Duela mende asko, Gabonetako Jeinuen Biltzarrak Monopolish izeneko jeinu gaiztoa kaleratu zuen, eta orain, urte hauetan guztietan prestatu duen mendekuarekin itzuliko da. Bere plana jeinu guztiak Gabonetako iragarki bihurtzea izango da. Baina horri aurre egiteko, Jeinuen Biltzarrak Pixi Post izango du, Gabonen Zaindaria.



20 000 ERLE ESPEZIE

14:30 - (128')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza : Estibalitz Urresola
Hizkuntzak: Gaztelera, euskara
Euskarazko azpitituluekin

Cocók zortzi urte ditu, ez dator bat gainontzekoek berarengandik espero dutenarekin, eta ez du ulertzen zergatik. Inguruko guztiek beti Aitor deitzen dioten
arren, berak ez du bere burua izen horrekin identifikatzen.
Anek, bere amak, oporrak aprobetxatuko ditu bere hiru seme-alabekin amaren etxera joateko. Bertan bere ama Lita eta izeko Lourdes erlezaina bizi dira.
Uda honek bizitza aldatuko die hiru belaunaldi ezberdinetako emakume hauei, beren zalantza eta beldurrei aurre egitera behartuz.

ANIMADEBA OFF

18:00 - (60')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: anitza
Hizkuntza: Euskara
Euskarazko azpitituluekin

Animadeba Gipuzkoako festibalak Euskal Animazioaren 50. Urteurrena ospatu du aurten. Karia hortara, Zinegin festibalari ordu bateko euskal animazio film sorta bat eskaini du. Euskal animazioa ez da genero ezagunena, baina film labur anitz existitzen dira, eta deskubritzeko altxor anitz !



IRATI

20:30 - (111')
Prezioa: 3€

Zuzendaritza: Paul Urkijo Alijo
Hizkuntza: Euskara, frantsesa, latina
Zuzendariaren presentzian

KASU!!! izen-ematea beharrezkoa zinegin.eus webgunean

VIII. mendea. Kristautasuna hedatzen ari da Europan, eta sinesmen paganoak desagertzen. Frankoen erasoaldiaren ondoren, Karlomagnoren armada Pirinioak zeharkatzera doala, ibarjaunak laguntza eskatzen dio antzinako jainkosa bati. Odolezko itun baten bitartez, etsaia garaitzen du, trukean bizitza emanda, baina lehenago, Eneko semeari hitzemanarazten dio bere herria babestu eta gidatuko duela aro berrian. Urte batzuk geroago, misio batekin egingo dio aurre Enekok promesa hari: aitaren gorpua berreskuratzea.

Ordutegiak

Filmak

	Prezioa	Irau.	10/19	10/20	10/21	10/22
POSITIVE BOMB	3 €	15'	19:30			
BAÑOLET	3 €	52'	20:30			
10 WATT BAKARRIK	3 €	20'		19:00		
TETUÁN	3 €	95'		20:00		
AZKEN DANTZA MAISUA	3 €	75'			14:00	
MIRANDE, FILM BAT EGITEKO ZIRRIBORROA	3 €	69'			16:00	
BIZKARSORO	3 €	81'			18:00	
UNICORN WARS	3 €	82'			20:30	
PIXI POST ETA OPARI EMAILEAK	3 €	91'				10:30
20 000 ERLE ESPEZIE	3 €	128'				14:30
ANIMADEBA	3 €	60'				18:00
IRATI	3 €	111'				20:30

Ekimen bereziak

BARNEZ KANPO Kontzertua Nahia Garaten argazkiekin	Urririk			22:00		
HAIRA Laupabortz aire ttipi	Urririk			23:00		
LUMI Bezperen dirdira Nagore Legarretaren argazkiekin	Urririk			00:00		
ZinEKIN Tailerra	Urririk				10:00 18:00	

Lekua

HARITZ BARNE ZINEMA-GELA - 7 Jats karrika - 64 240 HAZPARNE